

| | | | | | |
|--------|----|-----|---------------|------|-------------------------------|
| MUNIBE | 36 | 141 | SAN SEBASTIAN | 1984 | SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI |
|--------|----|-----|---------------|------|-------------------------------|

Recibido: 12-6-84

Rana dalmatina-ren (Amphibia, Ranidae) presentziari buruz Nafarroan

M.J. ARRAIAGO*

A. BEA*

Nahiz eta *Rana dalmatina* Gállego-k (1970) Nafarroan aipatu (Etxarri-Aranaz), bere presentzia eztabai-datua izan da (Pérez Mendia eta Castién, 1981).

Herpetologiako prospekzio batzuk Nafarroako Sakanan egiterakoan, 1984.eko apirilaren 20an biziera askeko lehendabiziko aldietan zeuden larba batzuk somatu ziren, baita errunaldi bat ere, garapen aurreratu-egoera batetan; *Rana dalmatina*-renak bezala egiaztatu ziren.

Putzu hau Arbizuko herrian (koadrikula U.T.M.: 30TWN75) kokatzen da, 500 metroko altitudetan, *Quercus robur*-ezko harizti batetan, haltzak (*Alnus glutinosa*) eta sahatsak (*Salix* sp.) ugari zirelarik, bai inguruetan, bai putzu barnean ere.

Putzuaren neurriak 80 metro luzean eta 20 metro zabalean ziren gutxi gorabehera, gehienez 30 zentimetroko sakonera edukiz eta haren ingurua irregularra zelarik. Ez zen ur-etorriarik aurkitu eta, dirudienez, iraunkorra da ur-masa hau.

Errunaldia putzu barnean kokatuta zegoen, urak 14 zentimetroko sakonera hartzen zuen puntu batean, ur-azala juxtu-juxtuan ukitzen zuela eta eroritako adar batzuen gainean ezarrita.

Errunaldiaren gainean larba eklosionatuberriak batu ziren eta inguruetan ere garapenaren hastapen-egoera ezberdinetan zeuden apaburuak ikusi ziren; bai errunaldiak, bai ikusitako larbak, *Rana dalmatina*-ren ezaugarri propioak aurkezten zituzten. Horrela, behin betiko egiaztatzen da *Rana dalmatina*-ren presentzia Nafarroako faunarentzat.

SUMMARY

One spawning mass and some larvae of *Rana dalmatina* have been localized in Arbizu (Navarra), U.T.M. grid : 30TWN75. The description of habitat and spawning site is presented. This species is definitively included in Navarran fauna.

BIBLIOGRAFIA:

PEREZ MENDIA, J.L. y CASTIEN, E.

1980— Primera aproximación al estudio de la distribución de anfibios y reptiles en Navarra. Coloquio Hispano-francés de Herpetología, Jaca (Huesca).

GALLEGO, L.

1970— Datos herpetológicos navarros. Pirineos, 97, 25—27, Jaca.

* Sociedad de Ciencias Aranzadi. Sección de Vertebrados. Plaza I. Zuloaga (Museo) 20.003 San Sebastián.